

Lauberri

2022ko martxoa– marzo 2022

Euskararen aldeko urratsak

(2.orr.)

Adingabeak eta gerrak Los menores y las guerras

(2.orr.)

Elkarrizketa sakonean Entrevista en profundidad Arantza Berasategi

(3.orr.)

Lau hitzetan, agenda eta gehiago!

(4. orr.)



Nor naiz ni? DBHko 3. mailako gazteei zuzendutako proiektu berria

Zelan ikusten dut nire burua? Nola nago emozionalki? Noa erabiltzen ditut sare sozialak? Sareetan ikusten dudana “bezain perfektua” al da nire bizitza? Nola ikusten ditut adiskidetasuna eta maitasuna? Eta zer gertatzen da alkoholarekin edo drogekin? Zer deritzot horri? Nor naiz ni guzti honen erdian?

Aurten, DBHko 3. mailako ikasleek garatzen duten diziplinarteko proiektua berritzea erabaki genuen, beraientzako benetan gai motibagarri eta baliagarri batean zentratzeko.

“Nor naiz ni” izenburupean, bete-betea heldzen diegu beren kezka handienei eta beren ongizatean eragin dezaketen kontuei: autoestimua, emozioak, identitatea, sare sozialak, Body positive, lagunak, maitasuna, sexualitatea, alkoholarekiko eta/edo drogekekiko esposizioa, eta horrek guztiak nola eragiten dien.

Hiru egunez gai horiek landu zituzten kanpoko profesionalen hitzaldiekin eta ikasleen hausnarketekin.

Izan ere, batzuetan, bizitzak, lagunak, gizarteak bide jakin batzuk hartzen ditu, baina beti gaude garaiz baloratzeko nola eragiten duen gauza bakoitzak gure ongizate emozionalean, eta horren arabera guretzat nahi dugun ala ez erabakitzeko. Bere hausnarketa sustatzea da helburua, bizitzaren gidaritza hartu dezaten, kontzienteki eta dagokion arduraz. Helduak izanez.

Proiektu hau osatzeko, familiei ere zuzendutako hitzaldia garatu zen.

“

¿Cómo me veo? ¿Cómo me encuentro emocionalmente?
¿Qué uso hago de las redes sociales?
¿Cuido de mí también en ellas? ¿Es mi vida “tan perfecta” como la que veo en las redes? ¿Cómo veo la amistad, y el amor? Y ¿qué hay del alcohol o las drogas? ¿Qué opino al respecto?
¿Quién soy yo en medio de todo esto?
Este año hemos decidido innovar en el proyecto interdisciplinar que desarrollan los alumnos-as de 3º de ESO, para centrarlo en una temática motivadora y útil para ellos y ellas.

”

Euskaran aldeko urratsak



Mugak lausotzen ari diren mundu globalizatu honetan, uniformetasunera jotzeko arriskua dago, bidean gure kultura eta hizkuntza galduz, azken batean: gure identitatea.

Gainera, gure gazteek kontsumitzen dituzten edukien gutxiengo bat baino ez dago euskaraz, eta, beraz, batzuetan zailagoa egiten zaie euskarazko erreferenteak aurkitzea.

Hori dela eta, ikastolan, beraientzat esanguratsuak edo erakargarriak diren eta beren bizitza euskaraz garatzeko konpromiso sendoa duten hainbat arlotako pertsona ezagunak eskaintzen eta ikusarazten saiatzen gara. Bere garaian, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria eta Eneko Auxe NASako ikerlari eta musikari euskalduna ezagutzeko aukera izan zuten. **Oraingoan, euskal futbol eta pilota arloko bi erreferenterekin partekatu zituzten hausnarketak: Gaizka Garitano eta Ibai Zabalarekin.**

Hemendik, gazte guztiak animatzen ditugu, euskarazko edukiak partekatzera ez ezik, euskarazko edukiak eta kultura sortzera.

Ildo beretik, aurten ere euskarazko literatur lehiaketa antolatu dugu Lauaxetako Lehen Hezkuntzako ikasleen artean: ipuinak, ilustrazioak eta koplak.

Asko izan dira aurkeztutako lanak eta oso onak, baina horietako batzuk aukeratu behar zirenez, hauxe izan da emaitza: ipuin baten ilustrazioagatik, Kiara Baz eta Nora Jaio; ipuin laburren kategorian, Aider Rodriguez, eta koplaren kategorian, Aiala Bilbao.

Zorionak parte-hartzaile guztiei!

Adingabeak eta gerrak: zer deritzote? Nola hitz egin horri buruz?



“ ¿Por qué hay una guerra? ¿Qué va a pasar? ¿Va a llegar aquí? Los menores se hacen muchas preguntas ante la situación que se está viviendo en Ucrania.

ETB quiso acercarse a los adolescentes para recoger su opinión. Puedes verlo en el video que encontrarás a [continuación](#).

En la misma línea, te dejamos con un artículo de interés:

[Cómo hablar con los menores sobre la guerra](#)

”

Zergatik dago gerra bat? Zer gertatuko da? Hona iritsiko da? Adingabeek galdera asko egiten dizkiote beren buruari Ukrainan bizitzen ari diren goeraren aurrean.

ETBk nerabeengana hurbildu nahi izan zuen eta Lauaxetako ikasle batzuen hitz labur batzuk eman zituzten “Egun on Euskadi” saioan. [Jarraian aurkituko duzun bideoan ikus dezakezu.](#)

Aurrekoaz gain, bizitzako beste esparru batzuetan bezala, komeni da gai horri buruz beraiekin hitz egitea, elkarrizketa haien adinera eta gertatzen dena ulertzeko gaitasunera egokituz.

Artikulu interesgarri batekin utziko zaitugu: [Cómo hablar con los menores sobre la guerra](#)

Elkarrizketa sakonean- Arantza Berasategi



Norberen ikasketak aurrera eramateaz gain, badaude hautetatik haratago itzelezko erronka eta lorpenak burutzen dituzten ikasleak.

Arantza Berasategi dugu hauetariko bat. Batxilergoko 2. mailako ikaslea dugu eta hainbat sari, bizipen eta ordu sartu ditu hipikaren munduan.

Bere esperientzia gertuagotik ezagutzeko, berarekin egin dugu oraingoan, elkarrizketa sakonean.

Noiz hasi zinan hipikan?

13 urte ingurugaz. Hasiera baten astean ordu betez aritzen nintzen eta urte bi igaro ondoren egunero joaten izan naiz. Mungiaiko hipika batetara joaten izan naz eta profesional naizenetik Lezaman nabil.

Zer ematen dizu zuri zaldian aritzeak?

Hasieran norbere buruarenganako segurtasuna hartzeko asko laguntzen du eta hortik haratago, beste kirol batzuetan ere jorratzen diran aspektuak: erronkak jartzea eta hauen alde jardutea, konpetitzea, ematen dizun oreka, ... Horrez gain, zaldiarengandik ikasten duzuna, eta taldean aritzean, besteak animatzea eta haien lorpenengatik ere ikastea eta poza hartzea.

Eta zu zeu beste kirol batzuetan ere aritzen zara?

Kirola orokorrean gustoko dut: tenisa, korrika... egia esan ez naiz geldia egiten direnetakoa!

Eta zaldian, zein lehiaketetan aritu zara?

Euskadin autonomikoetan aritu naiz, Espainia osotik baita eta nazioartekoan, Espainiako selekzioan hainbat lehiaketetan izan naiz: Campeonato Europaa, Italia, Alemania, Holanda, ...

Estatu mailan, nire kategoriako 4. gelditu nintzan, Euskadiko 1.a eta mundo mailan 2. Espainiako selekzioagaz.

Hainbat dira! Eta aurrerantzean?

Selekzioan joan nahi nuke aurten ere eta 1,50eko obstakuluak gainditu.

Sariak aipatu ditugu, baina zenbat lan dago lorpen guzti hauen atzean?

Asko egia esan, egunero noa entrenatzera, egunean 3 ordu. Handik bueltan nire ikasketei ekin behar diet eta arlo pertsonalean ere errenuntziak eskatzen ditu. Kirola bera oso polita da, baina lan asko eskatzen du, dedikazioa eta konpromisoa, bai zaldiarekiko, baita ikasketekiko ere. Gainera, horrenbeste denbora ematean kirol garestia biurtzen da eta bueltan nire aldetik ahal dudana eman behar dut.

Eta aurrerantzean, datorren ikasturtera begira zein helburu dituzu?

Injenieritza ikasteko naz eta ikusi behar, baina ez dut horrenbeste denbora izango zaldia emateko. Lehenetsuna Unibertsitatea izango da.

Oso ondo Arantza, erakutsitako dedikazio, konpromisoa etta gaitasuna kontutan izanda, ziur gagoz Unibertsitatean ere ondo joango zaizula. Ondo segi eta aurrera!

“

Hay estudiantes que además de tener éxito en sus estudios, hacen frente a grandes retos y cosechan logros más allá. Es el caso de Arantza Berasategi. Esta estudiante de 2º de Bachillerato ha obtenido grandes premios y ha invertido muchas horas y dedicación en el mundo de la hípica: 4ª en su categoría a nivel estatal. 1ª en Euskadi y 2ª a nivel mundial con la selección española.

El año que viene hace frente a otro reto: estudiar Ingeniería.

Estamos seguros que con la dedicación, compromiso y capacidades demostradas hasta el momento, dejará el pabellón bien alto.

Aurrera, Arantza!

”

Lauhitzetan

Janari bilketa solidarioan, 827 kg elikagai jaso ditugu. Eskerrik asko parte hartzaileei!

Lauaxetako ikasleek European Youth Parliament lehiaketan parte hartu dabe

Fair Saturdayk, Plantearen aldeko ipuinemn sari banaketa ospatu eban. Zorionak Uxue, Nerea, Maider, Ayala, Irati eta Sara

Berdintasunaren alde: martxoaren 8 hainbat ekintza garatzeaz gain, ikasleak eta ikastola moduan ere, "Berdintasunaren aldeko herrialde-itun baterako ibilbide-orria" izan ginan.

Lauaxetako ikasleek, "Industria Erronka"n parte hartu dute.

DBH 1. mailan kompetentzia digitala landu dugu, Segureskolaren eskutik.

Jose Mari Villa, Lauaxetako ikasle ohiak 5 postua lortu du BAME frogan (MIR delakoan).

Agenda

Agenda

Datozen ekitaldiak



ESKOLA EGUTEGIA



HH ESKOLA EGUTEGI BEREZIA

- **Zuhaitz eguna:**
Martxoak 26
- **Korrika Eguna:**
Apirilak 1
- **Familia mendi irteera:**
Apirilak 3

Gure web orrian sartuz, <http://www.lauaxeta.eus>, agenda atalean, etortzeaz dagozan ekitaldi edo jakin beharrekoen inguruko Informazioa eskuratu daitezke. Sartu eta ikusi.

Gehiago jakin nahi? Informazio/irakurketa interesgarriak nahi?

Sartu gure web orrian <http://www.lauaxeta.eus> eta klikatu gustokoen dozun iturria!

Facebook, Instagram, twitter, blog-a, Youtube. Guztiak zure eskura!

Lauberri



LAUAXETA
IKASTOLA